



Euskarazko lexiko eta fraseologia akademikoa

ECTS kopurua

2

MODALITATEA

Online

4 ordu sinkrono (otsailak 16 eta 18) eta 16 ordu asinkrono

Aurrez aurreko eta onlineko tutoretzak

EGUTEGIA

2026-02-16/2026-03-20

IRAKASLEAK

M^a Jesus Aranzabe
Igone Zabala

IKASTAROAREN EDUKIA

Ikastaro honetan, edozein testu akademiko ekoizteko nahitaezkoak diren lexiko eta fraseologia akademikoa landuko dira. Euskara duela hamarkada batzuk hasi zen erabiltzen testu-genero akademikoetan, besteak beste, doktorego-tesiak idazteko eta ahoz defendatzeko. Euskararen erabilera berri horiek posible izateko, nahitaezkoak diren hizkuntza-baliabideak garatu behar izan dituzte euskaldunen diskurtso-komunitate akademikoek. Garatu ez ezik, esamolde akademikoak finkatzen ere joan dira hamarkada hauetan. Izan ere, unitate fraseologikoak dira testu-genero batzuetan maiztasun bereizgarriaz erabiltzen diren hitzen eta morfemen konbinazioak, diskurtso horietan berriazko funtzioak betetzen dituztenak. Testu akademikoak idazteko, unitate fraseologiko erdiautomatikoak erabiltzen dituzten finkatutako diskurtso-eskemak baliatzen dira hizkuntza guztietan. Hitzunek unibertsitatean ikasten dituzte unitate fraseologiko horiek, komunikazio akademikorako erabiltzen dituzten hizkuntzetan baina, euskararen kasuan, zailtasun handiagoak dituzte ikasleek beste hizkuntza batzuetan baino. Izan ere, euskarazko testu akademikoen inputa askoz ere mugatuagoa da beste hizkuntzetakoa baino eta, gainera, lexiko eta fraseologia akademikoa erabat finkatzeko denborarik egon ez denez, badira erabilerarekin biderkatzen doazen esamolde desegokiak edota okerrak. Hauexek dira ikastaroan landuko diren gaiak:

1. Testu akademikoetan erabiltzen den lexikoaren sailkapena erregistroen arabera
2. Euskarazko lexiko akademikoaren identifikazioa, ohiko zalantzak eta akatsak
3. Fraseologia akademikoa: konbinazio lexiko akademikoen karakterizazioa
4. Kolokazio akademikoak eta kolokazio espezializatuak. Kontsulta-baliabideak eta ohikoak diren zenbait akats
5. Diskurtso-formula akademikoak eta diskurtso-funtzioak
 - 5.1. Testualtasun-baldintzak eta puntuazioa
 - 5.2. Testua egituratzeko formulak, oinarritzko bereizketak eta ohiko akatsak



5.3. Ikerketaren edukiari erreferentzia egiten dioten formulak, oinarrizko bereizketak eta ohiko akatsak

5.4. Iritzia eta ikuspegia emateko eta irakurleari zuzentzeko formulak, oinarrizko bereizketak eta ohiko akatsak

IRAKASKUNTZA-HELBURUAK

- Testu akademikoetan erabiltzen diren hiztegi-elementuen artean lexiko orokorra, lexiko akademikoa eta lexiko espezializatua bereiztea, Interneten eskuragarri dauden hiztegi, datu-base, corpus eta kontsultaguneak erabiliz zalantzak argitu ahal izateko.
- Euskarazko lexiko akademikoan ohikoak diren zalantzen eta akatsen ezagutzatik abiatuta, norberaren testuetan horrelakoak zuzentzea.
- Konbinazio lexiko akademikoen sailkapenetik abiatuta, norberaren testuetan kolokazioak eta diskurtso-formulak bereiztea, eta diskurtsoan betetzen dituzten funtzioekin lotzea.
- Kolokazio akademikoen eta kolokazio espezializatuen arteko bereizketatik abiatuta, zalantzak eta akatsak konpontzea kontsulta-baliabideak eta corpusak baliatuz.
- Diskurtsoa egokiro segmentatzea eta puntuazioa egokiro erabiltzea.
- Testu akademikoetan ohikoak diren izen- eta aditz-kohesio mekanismoak ezagutzea, eta ohikoak izaten diren akatsak zuzentzea norberaren testuetan.
- Diskurtso-formula akademikoen diskurtso-funtzioen araberrako sailkapenetik abiatuta, norberaren testuetan antzeko formulen erabilerari buruzko xehetasunak aplikatzea, eta ohikoak izaten diren akatsak saihestea.

EBALUAZIORAKO METODOLOGIA

Ikastaroan hainbat material mota jarriko dira ikasleen eskura (txostenak, artikuluak, bideoak...). Ikasleek material horiek landu beharko dituzte ezarritako epean, eta edukiak hobeto ulertzeko eta aplikatzeko ikastaroan bertan jarriko diren autozuzendutako galdetegiak egin beharko dituzte nahitaez. Horretaz gain, haien doktorego-tesiaren zati bat berrikusten joango dira gaiak landu ahala. Zalantzak argitzeko, foro bat edukiko dute eskura, eta aurrez aurreko tutoretzak ere eskatu ahal izango dituzte ikasleek.

Azken ebaluazioa bi tresnatan oinarrituko da:

- a) Galdera teorikoak eta praktikoak izango dituen galdetegi bat.
- b) Aukeratu duten doktorego-tesiaren zatiaren azterketa metalinguistikoa, eta berrikusitako testua.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Ebaluazio-galdetegiko galdera teorikoak egokiro erantzutea. % 5
- Ebaluazio-galdetegian Interneteko kontsulta-baliabideekin lotutako galderak zuzen ebaztea. % 5
- Ebaluazio-galdetegian, hiztegi-elementu, kolokazio eta formula zuzenak eta okerrak bereiztea. %10
- Ebaluazio-galdetegian formula akademikoak diskurtso-funtzioekin lotzea. % 10
- Ebaluazio-galdetegian, puntuazio zuzen eta egokia bereiztea. % 10
- Norberak idatzitako tesi-zatiaren azterketa metalinguistiko egokia egitea. % 30



- Norberak idatzitako tesi-zatian, ikastaroan landutako elementuen berrikuspena egokiro egitea. % 30